

Euskalgintza berritzaile edota iraultzaile?



IÑAKI
MARTINEZ DE LUNA
SOZIOLOGOA

Euskalgintza herritarraren zein instituzionalaren bulkadari esker, ekimen eta dinamika ugari abian dira euskara bultzatu asmoz. Horietan diharduten eragilek, euskararen etorkizun osasuntsua bermatzea dute helburu.

Hala ere, jomuga hori gizarte mota honetan betetzeko aukerarik ote dagoen galdetzen diogu geure buruari. Izan ere, jakina da mundu globalizatu honek albo-kalteak dakarzukiola aniztasunari, eta zurrunbilo suntsitzaile horretan kultura eta hizkuntza asko, naturaren hainbat espezie bezala, desagertzeko arriskuan daude.

Hortaz, zenbait zalantza pizten da. Globalizazioaren korrante nagusi horren kontra ibiliz, posible ote da bere eragin suntsitzailea erabat neutralizatzea eta, horrela, euskara dagoen egoera zaurgarritik betiko atera ez ezik osasuntsu bizi eta luze irautea? Hizkuntza gutxituak globalizazioaren mehatxutik salbu jarri daitezke, mundu hori iraultzeko beharrik gabe?

Izan ere, hizkuntza aldaketa *gizarte aldaketa* ere izanik, litekeena da meneko egoeran dagoen hizkuntzak normalizatzeko ahaleginak ahulegi suertatzea, aurka duten globalizazioaren indar berdintzaile eta suntsitzailea goitik behera etetera iritsi ezean.

Azken buruan, hauxe da mahai-gai-nean jartzen dugun hipotesia: “Meneko

egoeran dagoen hizkuntza bat suspertu eta biziberritzeko egiten diren ahalegin mota guztiek ez dute arrakasta bermatzen, den-denak ez baitira gai izango globalizazioaren joera suntsitzailea gainditzeko eta iraultzeko”.

Galdera horren oinarrian *Gizarte berrikuntza* dago; hobeto esanda, kontzeptu horren baitan bereizi ohi diren bi planteamenduak: *minimalista* eta *eraldatzailea*. Ikuspegi *minimalistak* gizarte egoera latz bat arintzeko balio duela esan ohi da, betiere gizarte horren funtsa ukitu gabe. Hurbilpen *eraldatzaileak* gizartean aldaketa sakonak eragitea bilatzen du, hala nola botere-harremanak aldatzea, *boton up* motako gobernantza bultzatzea, munduan egun nagusitzen diren balio eta printzipioak ordezkatzeko, eta abar.

Susmoa dugu euskalgintzak burutzen dituen ekintza gehien-gehienak *Gizarte berrikuntza*-ren planteamendu *minimalistan* kokatzen direla. Hala-ko ahaleginak lagundu dezakete euskararen egoera kezagarria arintzen, dudarik gabe. Baina hori nahikoa ote da euskaren etorkizun osasuntsua bermatzeko, ala beharrezkoa litzateke *Gizarte berrikuntza eraldatzaileak* aldarrikatzen duen ikuspegi iraultzaileari heltzea? ●

Ahaleginean



UXUE APAOLAZA
IDAZLEA

Buñuelen filmeko aingeruak hartu nau: ez oturuntza batean, hondartza udatiar batean baizik. Umeak papo agindu duenean bertan hasi naiz hondarra kentzen etxera itzultzeko, baina gero eta gehiago dago leku guztietan: umearen ipurmasailen artean, betazaletan, ahoan, pixoihalean... Karrotxoaren azpialdera zerbait sartu eta beste aldetik beste zerbait erortzen da, eta hondarrez betetzen.

Lortu dut. Karrotxoa atzerantz jarrita atera dut, sartu bezala, harean hondoratuta. Umea, lotuta, negarrez ari da ukabilez bere buruari kolpeka; petri-lean eserita nago ni garaipena arnasten.

Kaosak han darrai, haurraren arroparen azpian, karrotxoaren azpian, baina hala, azpiratuta. Emaginak esana: kaosaren erdian galduta zaudenetan, egin aurrera, kaosaren erdian ere bidea egin daiteke. Kaosaren erdian helburutxo bat hartu eta xendra egitea. Mezu positibo bat.

Baina zapatila bat (eta barruan darman galtzetina) falta dut. Gorria da eta berehala ikusi dut han, egindako bidearen erdian. Urrun. Ezin dut umea utzi eta haren bila joan. Ezin dut zapata bakarraz etxera abiatu. Ezin dut hondartzatik irten. Kaosa menderaezina da. Ahalegin gaitezen, berriro. ●